

4. - 2019 URTERAKO TABERNEN ORDUTEGIA ONARTZEA.

Xedea

2019 urterako tabernen ordutegia onartzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2019 urtean tabernekek bete behar daben ordutegia onartzea beharrezkoa da.

Bigarrena: 2019ko otsailaren 25ean Urigintza Saileko AOTak txostena egin eban.

Hirugarrena: 2018ko martxoaren 25ean Urigintza Saileko AOTak erabagi proposamena egin eban.

Argudioak

Bakarra: Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren inguruko 10/2015 Legearen, eta Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko 17/2019 Erregelamendua xedatutakoa kontutan izanda, tabernen egutegi eta ordutegi bat onartu behar da.

Erabagia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAGI DAU:

LEHENENGOA: Ostalaritza establezimientuzako ixteko ordutegia eta egutegi hau onartzea:

ORDUTEGI ARRUNTA:

Establezimendu moetea	Asteguna Neguan	Bariku, zapatu eta jai bezperak. Neguan	Asteguna Udan	Bariku, zapatu eta jai bezperak. Udan
Lehenengo taldea	23:00	00:30	23:30	01:00
Bigarren taldea	01:00	02:30	01:30	03:00
Hirugarren taldea	02:30	04:00	03:00	04:30
Laugarren taldea	04:30	06:00	05:00	06:30

- Negualdia: urriaren 1etik, maiatzaren 31ra.
- Udaldia: ekainaren 1etik, irailaren 30era.
- Ordutegi hau, jentea kaleratzeko denporea kanpo itzita ulertu behar da (30 minutu kaleratzeko).

- 3. eta 4. taldeen kasuan, 3 ordu pasatu beharko dira ixten dan unetik, barrero zabaldu ahal izateko.

ORDUTEGI BEREZIA: Ordutegi arrunta baino ordu bat gehiago.

ORDUTEGI BEREZIAREN EGUTEGIA:

Ordutegi berezia egun honeetarako onartzen da:

Errege bezperea, Aratuste martitzena, Aratuste zapatua, Arrain Azokako zapatua, San Juan bezperea, Madalen bezperan, Madalen eguna, Roke Deuna eguna, Bermistoria zapatua, Gabon eguna eta Gabon zahar eguna.

Bermeoko jaietako ordutegia zehazteke geratzen da. Jaietan inplikatur dagozan agente desberdinekin egon ondoren zehaztuko da ordutegi berezi hori, beti be10/2015 Legeak eta 17/2019 Erregelamenduak xedatutakoarekin bat.